

Iratxe Aldasoro Berazierto

B maila • Aipamena

Kaixo! Iratxe Aldasoro nauzue, eta Beasaindarra naiz. 2002ko Ekainean jaio nintzen. La Salle San Jose-n ari naiz DBH 4 egiten. Irakur zaletasun handia daukat; ez zait axola irakurgaia poesia, komikia edo prosa den. Horretaz gain, fantasia mundu batean murgildurik bizi naiz eta Japoniar kulturak asko erakartzen nau.



BURBUILAK

Sufrimenduzko oihua iritsi da
baina, oihartzun ahula besterik
ez dugu entzun.

Gerrako istorioak iritsi dira
baina, gure bizitzako burbuilak
babesten gaitu.

Gerratik ihes egindakoak iritsi dira
baina, erosotasunaren anpuluak
ikusezinak bihurtzen ditu.

Haizeak milaka arima mugitzen ditu
baina, haiengandik ihes egiteko
puztutako bizitza dugu.

...

Lau haizetara oihu egin genuen,
baina, Etsipenaren algarak
besterik ez genituen entzun.

Lau haizetara laguntza eskatu genuen,
eta, Heriotza etorri zen
gure bila.

Itsasoko basamortua
zeharkatu genuen,
eta, infernuko zulora sartu ginen.